

# Foru Gobernuak 3,3 milioi euro mantendu ditu 2020/2021 ikasturteko unibertsitateko beken deialdirako

NAOn gaur argitaratu da deialdi berria, zeinaren eskaera telematikoki egin beharko den

**Asteazkena, 2020ko Urriaren 28a**

**Nafarroako Aldizkari Ofizialak (NAO)** gaur asteazkena, urriak 28, argitaratu du 2020/2021 ikasturteko unibertsitateko beken deialdia, 3,3 milioi euroko kopurua mantenduz eta zeinen eskaera telematikoki egin beharko den. Laguntzak ikasleek beraiek eskatu beharko dituzte modu telematikoa Cl@ave, ziurtagiri digitala edo NAN+PIN zenbakia erabiliz, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) atarian horretarako argitaratuko den fitxa erabiliz.

## **Ikasturte honetako berrietasunak**

Aurten, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren (HZM) deialdiak bete beharreko baldintzak beheititu ditu, ikasle gehiagok beka eskuratzeko xedez. Nafarroako Gobernuaren deialdia Ministerioak ematen dituen laguntzen osagarria denez gero, oroitarazi beharra dago derrigorrezkoa dela laguntza hori eskatzea horretarako baldintzak betetzen direnean, bestela ukatu egingen baita Foru Gobernuaren laguntza.

Nafarroako Gobernuaren deialdiak ere beheititu ditu laguntza lortzeko baldintzak. Eskakizun akademikoez den bezainbatean, laguntza lortzeko aitzineko ikasturtean gaindituriko kredituen ehunekoa gutxitu da, eta ez dira ez-gaindituztat joko COVID-19aren ondorioz bertan behera utzirik ikasgaiak.

Alderdi ekonomikoei dagokienez, berriz, 1. errenta-muga handitzeaz gain, jaso daitekeen gehienezko zenbatekoa eguneratu da, erreferentziazat hartuz indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS), eta ez da deskontatuko Ministerioak ikasketa-espeditegatik ematen duen laguntzaren zenbatekoa. Era berean, ezohiko laguntza jasotzeko, aurreko deialdietan aurreikusiriko kasuak ez ezik, kontuan izanen da 2020an egoera ekonomikoak okerrera egin duela 2019arekin alderatuz gero, COVID-19a dela eta aurten ezarritako alarma-egoeraren ondorioz.

Ikasleak aitzineko ikasturtean gainditu gabeko ikasgaiak dituenen baizik ez zaie penalizazioa aplikatuko bizitoki eta garraiorako laguntzei.

Deialdiak duen beste berrietasun bat da familia-errenta erabilgarria kalkulatzeko kenkari bat ezarriko dela Familia Unitatea guraso bakarrekoa dela egiaztatuz gero.